




Familiarentzako eta inguru hurbileko pertsonentzako gidaliburua

Zainketa Intentsiboko Unitatea
Galdakao-Usansolo Ospitalea

Barrualde-Galdakaoko ESI



Osakidetza

BARRUALDE-GALDAKAKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
BARRUALDE-GALDAKAO



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

1	Gidaliburua aurkeztea	3
2	Zainketa intentsiboko Unitatearen ezaugarriak	3
2.1	Informazio orokorra, kokapena eta sarrera	3
2.2	Deskripzioa: Unitatea, boxa eta itxarongela	3
2.3	Lantalde asistentziala	4
2.4	Materialaz hornitzea (gailuak)	4
2.5	Zer egiten da unitatean? Teknikak eta prozedurak	5
3	Senidea edo inguru hurbileko pertsona bat ZIU: pazientea	7
3.1	Nola hartzen du arnasa?: intubazioa, airestapen mekanikoa edo oxigenoterapia	7
3.2	Horrenbeste kable eta gailu: Konstanteak erregistratzea. Zergatik? Zertarako?	7
3.3	Dokumentu eta datu interesgarriak	7
4	Familiarentzako edo inguru hurbileko pertsonentzako gida: zure parte-hartzea	8
4.1	Familia-unitatea: aztertzea	8
4.2	Zaintzaile nagusiak: harremanetarako telefonoak	8
4.3	Pazientearen higieena eta zainketak: Lagundu dezaket?	8
4.4	Elikadura: janaria eta edariak	9
4.5	Mobilizazioa eta errehabilitazioa: Zer egin dezaket?	9
4.6	Atsedena eta loaldia (delirioa eta nahasmendua)	10
4.7	Pazientearekin komunikatzea: Zelan? Ona al da nik berari hitz egitea? Ukitu dezaket?	10
4.8	Aisia: zer eman diezaioket? liburuak, loreak, gailu elektronikoak...	11
5	ZIUko bisitak	11
5.1	Ordutegi orokorrak beharrianetara egokitzea	11
5.2	Pertsona kopurua	12
5.3	Isolamendurako arauak	12
5.4	Eskuen higieena	12
5.5	Adin txikikoen bisitak	12
5.6	Bisitan telefono mugikorrek erabiltzea	13
6	Informazio asistentziala eskatzea	13
6.1	Ordutegia, tokia, nori; telefonoz?	13
6.2	Leku-aldatzeak eta altak	13
7	Informazio interesgarri gehiago	14
7.1	Zerbitzu erlijioso eta espirituala	14
7.2	Pazientearentzako arreta	14
7.3	Gizarte-langilea	14
7.4	Justifikagiriak eta txostenak:	15
7.5	Harremanerako telefonoak	15
7.6	Gomendioak	15
8	Bibliografia	16

Egilea: Zainketa Intentsiboko Unitateko Humanizazio Lantaldea

V. Arnaiz, T. Esteban, A. Arana

1 Gidaliburua aurkeztea

Senide edo gure inguru hurbileko pertsona bat Zainketa Intentsiboko Unitatean (ZIU) ospitaleratzen denean, esperientzia zaila izan ohi da, zalanntza asko eta informazioa jasotzeko beharrezina sorrarazten diguna.

Horregatik, gidaliburu honetan, senidea edo inguruko pertsona bat zerbitzu honetan ospitaleratzearen inguruko alderdi nagusiak jaso nahi izan ditugu.

Irakurri eta kontsultatu ezazu behar adina. Mesedez, ez atera gidaliburua Unitatetik. Irakurri ostean, informazio gehiago behar izatekotan, ZIUko gure lantalde asistentzialari galdetu diezaiokezu.

2 Zainketa intentsiboko Unitatearen ezaugarriak

2.1 Informazio orokorra, kokapena eta sarrera

Galdakao-Usansoloko Ospitaleko Zainketa Intentsiboko Unitatea egoera larrian dauden pertsonak artatzeko eremua da. Paziente horiek, euren gaixotasun eta prozesu motengatik, tratamendu, zainketa eta zainketa espezifiko etengabeak behar dituzte, lantalde asistentzialaren eskutik.

Ospitalizazio eremuko 1. solairuan dago, korridoreko erdigune parean. Horixe da, hain justu, bertan ospitaleratzeko ohiko bidea.

Pazientea unitatean behin ospitaleratuta, senideak eta inguru hurbileko pertsonak ospitalearen atzealdetik aterako dira, **Zainketa Intentsiboak** dioen seinalea dagoen atetik.




2.2 Deskripzioa: Unitatea, boxa eta itxarongela

Unitate angeluzuzena da, ezaugarri bereko bi zonaldetan bereizita. Unitate honetan, guztira, oso antzekoak diren banakako 15 box daude. Bertaraino, kanpo korridore batetik iris daiteke.

Atzeko sarrerako atearen ondoko gunean, 1-8 zenbakietako boxak daude, eta atzeko sarrerako ezkerrean, berriz, 9-15 zenbakietakoak. Bi zonaldeen erdian, erizaintzako kontrola, farmazia eta materialen biltegia daude.

Boxetara edota geletara sartzeko korridorea baino lehen, gela bat dago, bertan egoteko, lantalde asistentzialak abisatu arte. Horrez gain, atsedena hartzeko itxarongela dago, atearen eskuinaldean, itxaroten eman behar duzun aldi, ahalik eta erosoan egon zaitez. Kafe eta freskagarrien makina dago, eta ura hartzeko makina eta mikrouhin-labea ere bai.



2.3 Lantalde asistentziala

Zainketa Intentsiboko Unitate honetan osasunaren arloko kualifikazio handiko profesionalak dihardute. Eguneke 24 orduetan, Medikuntza Intentsiboan espezializatutako medikuak, barne mediku egoiliarak, erizaintzako profesionalak eta zaintza osagarrietako pertsonal teknikoa ari dira bertan lanean.

Halaber, espezialitate mediko eta kirurgiko gehienek laguntza daukate, baita beste profesional batzuen ere: zeladoreak, fisioterapeutak, administrazioako eta garbiketako langileak..., hori guztia, zure senideak arretarik egokiena eta pertsonalizatuenaren zein tratatu gizatiarra jasotzen duela bermatzeko.

Jakinarazi diezazkiguzu zure beharrianak, ZIUko lantaldeko kideak erantzun egokia ematen saiatuko dira une oro.

2.4 Materialaz hornitzea (gailuak)

Box bakoitzean, beharbada ezagutzen ez dituzun materialak eta gailu espezifikak daude, senidearen edo zure inguru hurbileko pertsonaren zaintza eta tratamendua bermatzeko beharrezkoak direnak. * Boxaren argazkia

Pazienteak, kableen bidez, hainbat gailurekin konektatuta daude. Gailu horiek pazienteen egoerari buruzko informazioa ematen digute, baita gerta daitezkeen aldaketen inguruko abisuak ere, alarma akustikoen eta argi sistema baten bidez. Zenbaitetan, alarma sistema horiek jo egiten dute edo aktibatu egiten dira; horrek, ordea, ez du esan nahi, pazientearentzako arrisku egoerak direna.

Gainera, gailu horiek pantaila zentral batekin konektatuta daude, hau da, informazio guztia bidaltzen dute profesional asistentzialak dauden tokira, pazientearen egoera une oro ezagutu dezaten.

Jarraian, ospitaleratutako pertsona bakoitzaren beharrianak arabera dauden gailuak deskribatuko ditugu. Paziente guztiek ez dituzte gidaliburu honetan dauden gailuak behar:

- **PANTAILAK:** gailu honek bizi-zeinuak erregistratzen ditu etengabe. Informazio hori lortzeko, pazienteak pantailarekin konektatzen dugu, bularrean, atzamarrean edota izterondoan hainbat kable zein eranskailu jarrita.
- Paziente mugitzen bada, erregistroa aldatu daiteke horrek inolako arazorik ekarri gabe.



Bihotz-maiztasuna

Oxigeno-asetasuna

Tentsio arteriala

Temperatura

Arnas-maiztasuna

- **ARNASGAILUA:** pazienteak aire edota oxigeno gehiago behar duenean, gailu honek arnasa hartzen laguntzen dio. Batzuetan, gailu honekin konektatuta dago, pazienteari trakeotomia egin orduan, ahoan sartu zaion hodi, edo, maskara berezi baten bitartez.
- **INFUSIO-PONPAK:** medikazioa, serumak edo beharrezkoa den dieta jarraitutasunez eta etengabe emateko erabiltzen diren gailuak dira.
- **DIALISI-MAKINA:** makina honek giltzurruneko funtzioa ordezkatzen du aldi batez, eta likidoak eta odoleko toxinak ezabatzen laguntzen dio.
- **TAUPADA-MARKAGAILUA:** gerta daiteke pazienteak bihotz-erritmoari eusteko lagundu diezaiokeen gailua behar izatea, aldi baterako taupada-markagailu bat, alegia.



Asnasgailua



Dialisi-makina



Taupada-markagailua



Infusio-ponpak

2.5 Zer egiten da unitatean? Teknikak eta prozedurak

Segun eta zein diren pazientearen egoera eta beharrianak, baliteke ZIUan dagoen bitartean, pazienteari teknika batzuk egin behar izatea. Ohikoenak hauek dira:

- **AIREZTAPEN MEKANIKO EZ INBADITZAILEA:** pazientearen sudurra eta ahoa estaltzen dituen maskara bati konektatutako haizagailu baten bitartez, airea eta oxigenoa sartzen da biriketaraino.
- **INTUBAZIOA:** pazientearen ahotik hodi bat sartzen da biriketaraino, arnasa hartzen laguntzeko. Teknika hori egiterakoan, pazienteari lo egiteko farmakoak ematen zaizkio. Bien bitartean, arnasgailuari konektatuta dago, eta medikazioa ematen zaio, eroso egon dadin. Gerta daiteke beharrezkoa izatea hainbat egunetan lo egotea. Intubatuta dauden pazienteek hitz egin ezin badute ere, aurrerago azalduko dugun moduan, eurekin hitz egiten saiatu gaitzke.
- **TRAKEOTOMIA:** batzuetan, ahoko hodia trakean jarritako beste batekin ordeztu behar da.
- **KATETERRAK:** ZIUan dagoen bitartean, pazienteari infusio-ponpekin konektatutako diren kateterrak jarri beharko zaizkio, botikak ematea eta odol-ateratzea errazteko.

- **DRAINATZEAK:** paziente bakoitzaren beharren arabera, baliteke drainatzeak jarri behar izatea. Hodi horiek gorputzeko zonalde zenbaitetan jartzen dira (bularra, burua, sabelaldea), eta likidoak edo airea biltzeko eta kanpora ateratzeko balio dute.



Aireztapen mekaniko ez inbadatzailea



Intubazioa



Trakeotomia



Kateterrak



Drainatzeak

3 Senidea edo inguru hurbileko pertsona bat ZIU: pazientea

3.1 Nola hartzen du arnasa?: intubazioa, airestapen mekanikoa edo oxigenoterapia

Maiz, ZIUko pazienteek oxigeno-ekarpen gehigarri baten beharra daukate. Baliteke senideak hodi bat edo trakeotomiako kanula eramatea, edo haizagailuari edo oxigenoari konektatutako maskara.

Hasieran baliteke haizagailua une oro behar izatea, baina helburua da, denborarekin, laguntza barik arnasa hartzen hasten den heinean, haizagailua eta hodia kentzea.

3.2 Horrenbeste kable eta gailu: Konstanteak erregistratzea. Zergatik? Zertarako?

ZIU ospitaleratutako pazienteei kable asko jarri ohi zaizkie, horien eta gorputzeko zonalde zenbaitetan ipintzen zaizkien eranskailuen bitartez, pazientearen egoera eta tratamendua kontrolatu ditzakegu. Horregatik ematen zaizkizu senidearen jantziak eta objektu pertsonalak.

Hauxe da, hain justu, jaso ohi den informazioa: bihotz-jarduera, arteria-tentsioa, bihotz-maiztasuna, oxigeno-asetasuna, arnas-maiztasuna eta gorputz-tenperatura.

- **Tenperatura kontrolatzea eta eustea:** senidearen tenperatura aldatu daiteke arrazoi desberdinengatik. Ondorioz, tenperaturaren arabera, pazientea gehiago edo gutxiago tapatuko dugu, eta batzuetan, ur hotzeko konpresak edo bestelako gailuak (aire bero edo hotzeko tapakiak) jarriko zaizkio; tenperaturari maila normaletan eusteko.
- **Gernua eta eginkariak:** senidea ospitaleratuta dagoen bitartean, gernu-kopurua kontrolatu behar da. Horretarako, sarritan, gernu-zunda jartzen zaie. Horrez gain, ez mugitzeagatik edota aireztapena eta serumak direla-eta, litekeena da pazienteak likido erretentzioa izatea edo puztuago egotea. Hortaz, garrantzitsua da pazienteak edaten duen likido kopurua kontrolatzea.

Immobilizazioa dela-eta, lehen egunetan bereziki, gerta daiteke pazienteak idorrieria jasatea eta, ondorioz, laxanteak hartu behar izatea. Aitzitik, botika batzuen eraginez, beherakoa izan dezake. Hori dela-eta, batzuetan zunda jarri behar da eginkariak batzeko.

- **Edoskitzea:** pazienteak edoskitze prozesuan badago, eta jarraitu nahiko badu, ama-esnea ateratzea errazten saiatuko gara. Horretarako, ohiko materiala erabiltzea gomendatzen dugu.

3.3 Dokumentu eta datu interesgarriak

- **Baimen Informatua (BI):** prozedura batzuen kasuan, beharrezkoa da idatziz baimena ematea, hau da, baimen informatua izeneko dokumentua bete behar da.

Pazienteak, bere egoera dela-eta, dokumentua ezin badu sinatu, familiaren baimena eskatuko da. Prozedura urgetetarako baimenak salbuetsita daude. Era horretako egoeretan, izan ere, senideak abisatu edota euren baimena eskatu gabe jardun behar baita.

- **Aurretiazko Borondateen Dokumentua (ABD):** senideak mota horretako dokumenturik badauka, jakinarazi iezaiozu medikuari edo erizainei.

- **Datuak erregistratzea:** ZIUen ospitaleratutako pazientearen datuak datu-base batean sartuko dira zerbitzuko jarduera kontrolatzeko eta, besteren artean, gaixotasunen bilakaeraren eta kontrako eragin edo gertakizunen segimendua egiteko ere. Helburua arretaren kalitatea areagotzea da. Datu horiek anonimizatu egingo dira, eta konfidentzialtasunez tratatuko; hau da, ezin izango da pazientearen zuzeneko eragin identifikatu. Datuak Babesteko Legearen argitan, zure datuak aipatutako datu-basean sartzea nahi ez baduzu jakinarazi egin behar diguzu.

4 Familiarentzako edo inguru hurbileko pertsonentzako gida: zure parte-hartzea

Ospitaleratzten denetik alta jaso arte, pazienteak bere eguneroko jardueretan eragina izango duten egoera ezberdinak biziko ditu. Horregatik, familiaren laguntza ezinbestekoa da ospitaleratutako pertsonari ahalik eta zainketa egokienak eskaintzeko, bai eta suspertze prozesurako ere.

4.1 Familia-unitatea: aztertzea

Familia amankomuneko historia daukaten pertsonen osatutako sistema da. Pertsona horien arteko lotura sakona da, eta kide batek egoera zaila bizi badu, horrek eragin negatiboa dauka gainerako senideentzat; familiaren egiturari, egunerokotasunari eta ohiko funtzionamenduari eragiten baitie.

Familia-dinamikaren desoreka horrek eta senideak edo inguru hurbileko pertsonak zein gaixotasun daukan edota zer gertatuko zaion ez jakiteak era honetako sentimenduak eragin ditzake: shock sentimenduak (ez jakitea zer egin edota nola erreakzionatu), egoera ez onartzea (ez sinestea benetan gertatzen dabilela), haserretzea, kezkatzea, itxaropena izatea, errudun sentitzea, antsietatea eta beldurra.

Horregatik, ZIUko profesionalok kalitatezko asistentzia eskaintzen ahalegintzen gara une oro, eta halaber, zuzanak kezka ere badaukagu, hau da, izan ditzakezun sentimendu negatiboak -baldin badaukazu- bazter utz ditzazun, eta egoera hau ahalik eta erarik onenean gainditzun laguntzeko saiakera egiten dugu. Laguntza erlijiosoa edo espirituala behar izatekotan, harremanetarako kontaktuak daukazu gidaliburu honen bukaeran. Profesionalen (psikologoarena edo psikiatrarena) laguntza behar baduzu, berriz, jakinarazi iezaiozu senidearen ardura daukan medikuari, adituak diren profesionalekin kontaktuan jartzeko.

4.2 Zaintzaile nagusiak: harremanetarako telefonoak

Erreferentziatzeko bi pertsona identifikatzeko eskatuko dizugu. Bi pertsona horiek zaintzaile nagusiak eta erreferenteak izango dira, baita lantalde asistentzialaren eta gainerako senideen arteko bitartekariak ere. Horretarako, bi pertsona horien telefonoak eskura izan behar ditugu.

Lantalde asistentzialak zenbait arrazoiengatik deitu ahal ditu; eta ez du nahitaez izan behar senideak okerrera egin duelako.

Senideari buruzko datuen bat jakitea komeni dela uste baduzu, ez izan zalantzarik eta jakinarazi ezazu; garrantzitsua eta oso lagungarria izan daiteke pazientearen zainketari buruzko erabakiak hartzeko orduan.

4.3 Pazientearen higieena eta zainketak: Lagundu dezaket?

Egunero, lantalde asistentzialak norberaren higienarako zainketekin lagunduko dio senideari. Zainketa horiek errazteko, eta segurtasun arrazoiengatik, pazientearen oheko arropaz estalita egongo da, baina biluzik. Horrengatik, bere jantziak eta objektu pertsonalak emango dizkizugu.

Nahi izatekotan, nezeserra eman ahalko diguzu garbitasunerako erabili ohi dituen gauzekin: orrazia edo ile-eskuila, kolonia freskoa, hortzetako eskuila eta krema, bizarra kentzeko aparra eta bizar-aitzurra.

Ez da azpiko arropa ekarri behar, ezta pijama edo ohe-atorrak ere. Mobilizazioarekin hasten garenean, hau da, pazientea altxatzen hasten denean, etxeko zapatilak ekarri ahalko dizkiguzu.

Senidea zaintzen lagundu nahi baduzu, kontsulta egiozu erizain arduradunari; berak esango dizu zer egin dezakezun eta zein den egiteko erarik egokiena.

4.4 Elikadura: janaria eta edariak

Senideari elikatzen lagundu ahal diozu, erosoago eta errazago egin dezan.

Intubatuta badago, ezin izango du ahotik jan edo edan. Baliteke sudurretik sabelerainoko zunda jarrita edukitzea, elikagaiak eta ura emateko.

Ohikoa da oso, pazienteek egarri direneko sentsazioa edukitzea. Sentsazio hori arintzeko, ezpainak busti ahal dizkiozu uretan sartutako gaza batez. Horretarako, makilatxo freskagarriak ere eman ahal dizkizugu.

- Aireztapen ez inbaditzailea badarama, kopuru txikiak jan ahal izango ditu, eta edan, atsedendaldietan, beti ere kontrako indikaziorik ez badauka.
- Trakeotomia badarama, beharbada birrindutako jakiak eta testura oretsua daukatenak jaten has daiteke, kontrako eztarriko trabamendua ekiditeko.
- Hortz-protesiak badarabiltza, jaten hasten denerako ekar diezazkiozu.

Erizaintzako langileei kontsultatu iezaiezu, ia posiblea den senideak gustukoago dituen elikagaiak ekartzea. Ez da gomendatzen digeritzen zailak diren elikagaiak ekartzea.

Senideak elikagairen batekiko intolerantzia badauka edo alergiaren bat, jakinarazi iezaiezu arreta asistentzialeko langileei. Gauza bera egin behar da, pazientearen kultura edo erlijioa dela-eta, elikagairen bat ezin badu jan.

4.5 Mobilizazioa eta errehabilitazioa: Zer egin dezaket?

Pazientea ZIUu ospitaleratuta dagoenean, arreta asistentzialeko langileak berori mobilizatzeaz arduratuko dira, larruazaleko ultzerak saihesteko eta erosoago egon dadin. Litekeena da, bisitetan, senidea jarrera desberdinetan aurkitzea, albo batera eta bestera. Batzuetan, beharrezkoa izan daiteke pazientea ahuspez jarri behar izatea, arnasa hartzen laguntzeko. Egoerak ahalbidetzen duenean, beharrezkoak diren gailuen laguntzaz, jaikiaraziko dugu.

Gainera, ospitaleratuta dagoen bitartean, baliteke zera detektatzea: giharretako tonua eta indarra galtzen dela. Hori mugimendurik ezak eta estres egoerak eragiten du, nagusiki. Hori prebenitzeko, fisioterapeuta dator, astelehenetik larunbatera, goizeko 11:00etatik aurrera, asnas fisioterapia eta fisioterapia motorra egiteko. Zaintzailea, saioak dirauen bitartean, pazientearekin egotea komeni da, baita parte hartzea ere, baldin eta pazienteak berak eta senideek hala nahi badute; beti fisioterapeutaren zaintzapean eta berak lagunduta.

Bisita egin orduan, onuragarria da pazienteari besoak eta zangoak mugitzen laguntzea. Egin aurretik, hala ere, galdetu egiozu, beti, erizaintzako profesional arduradunari.

Senidea ahalik eta lasterren mugiaraztea garrantzitsua da, goizez eta arratsalde, ez baldin badago kontraindikaziorik, jakina.

4.6 Atsedena eta loaldia (delirioa eta nahasmendua)

Senidea lotan edo anestesiarenean eraginpean egon daiteke. Bere egoeragatik, beharrezkoak diren medikamentuek eragindako sedazioa eta kontzientzia galera izan ohi da. Egoera horretan gadago, hitz egin diezaiokizu eta ukitu. Era horretako ekintzak zenbateraino atzematen dituen ez dakigu, baina, ziuraski, onuragarriak dira bai zuretzat baita berarentzat ere. Sedazioa gutxitu egingo zaio, hoberantz egin ahala.

Gerta liteke, iratzartzen joan ahala, ez gogoratzea non dagoen, eta urduri jartzea. Farmako lasaigarriak kentzeak, lo faltak eta denboraren joanaren nozioa galtzea (ez dakite eguna ala gaua den); nahasmena eta desorientazioa eragin ohi duten faktoreak dira. Hori prebenitzeko, bisitan etorri orduan, gogorazi egiazu non dagoen eta zein egunetan bizi den. Zein egun eta ordu den azaldu iezaiozu, eta komentatu iezaizkiozu interesatzen zaizkion kontuak edo entretenigarri zaizkionak. Lagungarri izan daiteke erlojua, egutegia, argazkiak edo marrazkiak ekartzea.

Neurri horiek guztiak hartuta ere, baliteke desorientatuta jarraitzea, ez ezagutzeraino, batzuetan. Hori gertatzekotan, berarekin hitz egingo dugu berrorientatzen laguntzeko, eta zenbait kasutan, medikamentuak eman beharko zaizkio.

Kasuren batean, izan daiteke telefonoz deitzea eta etortzeko eskatzea, horrek lasaitzen lagun badiezaioke.

Hala eta guztiz ere, artaga eta nahastuta jarraituko balu, zuri jakinaraziko dizugu eta baloratu egingo dugu azken baliabide modura euspen mekanikoa jarri behar ote zaion, autolesionatu ez dadin.

Bere buruari minik egin ez diezaion, joan aurretik, beti egiaztatu ezazu ohearen barandak jasota daudena.

Bestalde, ohikoa izaten da Zainketa Intentsiboko Unitatean (ZIU) dagoen bitartean, loaren erritmoa aldatzea. Halakorik behar izanez gero, belarrietarako tapoiak eta begiak estaltzekoa eman ahal dizugu.

4.7 Pazientearekin komunikatzea: Zelan? Ona al da nik berari hitz egitea? Ukitu dezaket?

Senidea intubatuta badago berarekin komunikatzea zaila izan daiteke. Horrek ez du esan nahi, hala ere, berarekin komunikatzen saiatu behar ez duzunik. Kontrara, onuragarria izango zaio hitz egin diezaiozun.

Pazientzia izan ezazu, eta ahalegindu zaitetz galdera errazak egiten, “bai” edo “ez” erantzun ditzakeenak. Egunak igaro ahala, artatzen duten profesional asistentzialak zein zu zeu jariozunez komunikatuko gara pazientearekin.

Aireztapen ez inbaditzailea izatekotan, ez iezaiozu hitz eginarazi, maskara ipinita daukan bitartean; horrela eginez gero, airea eskapatuko zaio, eta horrek, neke sentsazioa areagotu dezake.

Aukeran, itzarrik dagoen bitartean, ohar-liburuxka edo arbela erabil dezakezu. Guk komunikazioa errazteko alfabetoa emango dizugu.

Hala beharko balu, ekar diezazkiozu betaurrekoak eta audifonoak.

Senidea ukitu dezakezu. Berarengana gerturatu zaitetzke, kableak eta hodiak ez dira traba izan behar maitasuna adierazteko. Erizaintzako langileek trabak kentzen lagunduko dizute, gerturatu zaitzen.

4.8 Aisia: zer eman diezaioket? liburuak, loreak, gailu elektronikoak...

Senidea itzarrik badago, eskertu egingo dizu irratia, egunkaria, bere gustuko liburu edo aldizkari bat ekartzea, ZIUko egotaldia eramangarriago egingo diona.

Higiene eta asepsia arrazoiengatik, ezin dira loreak ekarri unitatera.

Entzungailudun gailu elektronikoak erabili daitezke: ordenagailu eramangarriak, telefono mugikorrak edo tabletak.

Telefono mugikorrekin kasuan, modu arduratsuan erabili beharko dira, gainerako pazienteen atseden eta intimitateari traba ez egiteko.

Jakinaraztea, gailuok galtzea edo apurtzea ez dela erakunde honen erantzukizunpekoa.

Gogorarazten dizugu, bestalde, ezin dela argazkirik ez grabaziorik egin.



5 ZIUko bisitak

Egoera kritikoan dagoen senidea edo gertuko laguna ikusteak, batzuetan, larritu egin ahal zaizu. Baliteke bisita egitea esperientzia gogorra izatea zuretzat, baina, duda barik, ospitaleratatuko pazientearentzat lasaigarria eta onuragarria da.

5.1 Ordutegi orokorrak beharrianetara egokitzea

Aukera daukazue senidearekin egoteko, ordutegi honetan:



Dena den, ordutegi malguagoa behar baduzu, erizaintzako arduradunarekin adostu dezakezu, pazientearen egoera, atsedeen beharrian, eta bere iritzia aintzat hartuz, baita senideen beharrianak eta zerbitzuaren beraren dinamika ere.

Adostutako ordutegiak aldatu egin daitezke, edozein momentutan, beharrianon aldaketa puntualak direla-eta. Ulertuko duzelakoan gaude.

Ohiko ordutegitik kanpo egingo badiozu bisita, eskertuko genizuke, pasatu aurretik, erizaintzako arduradunari jakinaraztea.

Bisita-ordutegiak errespetatu ditzazun eskatzen dizugu, hau da, ez saiatu ordua baino lehen sartzen, edota ordua amaitu eta gero joaten. Sarrerako ateak modu automatikoan irekitzen dira, eta ez dira irekiko ordutegi orietatik kanpo.

5.2 Pertsona kopurua



Box bakoitzeko 2 lagun egon daitezke gehienez.

Egoera berezietan, betiere erizaintzako arduradunarekin hitz eginda, pertsonaren bat gehiago sar daitezke.

Bisita-ordutegiaren barruan, bisitariak nahi beste aldiz elkar trukatu daitezke; truke hori, jakina, boxetik kanpo egin beharko da.

Egon zaituz itxarongeletan, eta ez pasilloetan.

Tonu baxuan hitz egiteko eskatzen dizugu, unitatean ahalik eta zaratarik gutxien egoteko, ospitaleratutako pertsonen traba ahalik eta txikiena egiteko.



5.3 Isolamendurako arauak

Langileek holakorik adierazten ez badizu, ez da maskararik, amantalik eta eskularrurik jantzi beharko.

Senideak babes bereziko neurririk behar badu, erizaintzako taldeak jakinaraziko dizu zein.

Hotzeria daukazula edo ospitaleratuta dagoenari kalte eragin diezaiokezula uste baduzu, erizaintzako kideek maskara emango dizute.

5.4 Eskuen higieena



Infekzioa saihesteko neurririk eraginkorrena eskuak garbitzea da. Gogora ezazu, gelan sartzean eta ateratzean, eskuetan alkoholdun gela (hidroalkohola) aplikatzea. Gel-banatzaileak aurkituko dituzu boxetarako sarbideko alboetako pasilloetako gelaurreetan. Boxetan dagoen hidroalkohola ere aplikatu dezakezu.

5.5 Adin txikikoen bisitak

Adin txikikoek ez daukate galazota Zainketa Intentsiboko Unitatean sartzea, baina kontuan hartu behar duzu:

- Gurasoek edo legezko ordezkariak erabakiko dute adin txikikoak bisita egingo duen ala ez.
- Haurra sartzea nahi baduzu pazientearen erizaintzako profesional arduradunari jakinarazi behar diozu, bisita behar den eran programatu dezan. Esaterako: bionboak ipiniz, beste paziente batzuk ikus ez ditzan.
- Adin txikikoa beti sartuko da bisita behar den eran egin dezan zainduko duen heldu batekin.
- Zaindu ezazu adin txikikoa sartu ez dadin ospitaleratutako zuen lagunarena ez den beste gune batzuetan.

5.6 Bisitan telefono mugikorrak erabiltzea

Telefono mugikorrak erabiltzea onartuko da, baldin eta modu arduratsuan egiten bada. Pazienteen atsedena eta intimitatea zaintzeko, momentu oro, isillean izateko eskatzen dizugu. Telefonoz hitz egin nahi baduzu ahalegindu zaitez unitatetik kanpo egiten.

Pazienteen pribatutasuna bermatzeko eta instalazio sanitarioen funtzionamendu egokirako, zera jakinarazten dizugu: osasun-zentro honetan debekatuta dagoela argazkiak ateratzea eta bideoak grabatzea, norberaren irudiaren lege-araudiak ezartzen duen eran; maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak, ohorea, norberaren eta familiaren intimitatea eta norberaren irudia zaintzeari buruzkoak, garatzen duena.



Bestalde, araudi hau “osasunari eta arreta sanitarioari lotutako herritarren eskubideen eta betebeharren gutunera” biltzen da (apirilaren 25eko 14/1986 Legea, Osasuneko Lege Nagusia), hauxe jasotzen duena:

- Osasun sisteman sartzeko betebeharrak: instalazioak eta zerbitzuak modu arduratsuan erabiltzeko betebeharra, baita programatutako ordutegiak eta arreta ematen duten osasun-zentroetako arauak errespetatzekoa ere.
- Intimitatearekin eta konfidentziasunarekin lotutako eskubideak.

6 Informazio asistentziala eskatzea

6.1 Ordutegia, tokia, nori; telefonoz?

Osasun-informazioa konfidentziala da. Legez pazienteari eta berorrek baimendutako pertsonari soilik emango zaie informazioa.

Egunero, igandeak eta jaiegunak barne, zaintzaile nagusiak diren pertsonen informazioa emango die mediku arduradunak, 13:00etatik 14:00etarako tartean, unitatearen sarrerako bulegoan, “informazio-bulegoa” dioten horrexetan, edo boxean bertan. Era berean, erizaintzako profesionalak azalduko dizkizu zein diren senideari egin beharreko zainketak eta bere beharrianak.

Horrez gain, arratsaldeko bisitaldian, hala nahi izanez gero, erizaintzako langileek informazio eguneratua emango dizute honakoez: senidearen konforta, beharrak eta zainketak, eta izan ditzakezun zalantzak argituko dizkizute.

Senidearen egoeraren konfidentziasuna mantentzeko, ez da informaziorik emango telefonoz, ez bada ezarritako ordutegian etortzerik ez daukazula. Holakorik gertatzekotan, mediku arduraduna zurekin harremanetan jartzea eska dezakezu, ordutegi horretan, telefonoz.

Zurekin telefonoz komunikatuko gara, baldin eta pazientearen egoeran aldaketa esanguratsua gertatu bada, edo prozeduraren bat egiteko baimena behar denean.

6.2 Leku-aldatzeak eta altak

ZIU n dagoen bitartean, baliteke senidea lekuz aldatzea: proba diagnostikoak egiteko, ebakuntza-gelara eramateko (behar baldin badu) edo beste ZIU batera.

Edozelan ere, posible den guztietan, lekuz aldatuko dela jakinaraziko zaizu; horretarako telefonoz deituko dizute. Hala ere, jakinarazteko astirik ez dagoenean, gerta liteke bisitan zatozenean senidea gelan ez aurkitzea. Kasu horretan, ez zaitez larritu, profesional sanitarioek momentuan jakinaraziko dizute non dagoen eta izan dezakezun edozein zalantza argituko ere.

Egoera medikoa behin egonkortuta, eta ZIUko zainketak behar ez direnean, Unitatean alta emango zaio, eta ospitalizazioko solairura eramango dute.

Holakorik gertatzekotan, lekualdatze horretan pazientea senidearekin lagunduta joan dadin ahaleginduko gara, eta zurekin harremanetan jarriko gara, eman dizkiguzun telefono zenbakietara deituz, jakinarazteko zein solairura eramango dugun eta zein ordutan.

Itxaron ezin izatekotan, edo momentu jakin horretan etortzerik ez badaukazu, pazientea lekuz aldatuko dugu, eta solairuan eman zaion gelara joango zara zuzenean, egoki deritzozunean.

Edozelan ere, zure esanetara gauzkazu edozein zalanntza argitzeko edo galderei erantzuteko.

7 Informazio interesgarri gehiago

7.1 Zerbitzu erlijioso eta espiritualak

Zerbitzu hori talde batek ematen du:

- Era honetako zerbitzuak emateko irekita: giza-beharrianak, espiritualak eta erlijiozkoak; bere sinismena zein sinismenik eza gora-behera.
- Paziente eta bere senideak ditu ardatz.
- Gertutasuna, entzutea eta laguntasun pertsonalizatua sustatuz.
- Zaurgarrienak direnen aldeko lehentasunezko aukera eginez; gizarte-bazterketaren mugetan dauden pertsonak, hain justu.
- Otoitzero eta sakramentuzko dimentsioa eskainiz.



Zerbitzuaren eta kaperaren kokapena: 3. solairua

Harremanetarako: ospitaleko telefono-gunearen bitartez, edo telefono honetara deituz: 68 88 09 297

7.2 Pazientearentzako arreta



Pazienteari arreta egiteko Zerbitzura jo ezazu kexa edo erreklamaziorik egin nahi baduzu, zein iradokizunak egin edota jasotako arretagatik eskerrak eman nahi badituzu.

Kokalekua: Ospitalizazioko harrera nagusia

Orduategia: 08:00etatik 15:00etara (astelehenetik ostiralera)

Telefonoa: 94 400 71 04

7.3 Gizarte-langilea

Ospitalizazioko harrera nagusian dago, Pazienteen Harreraren ondoan. Pazienteari eta bere senideei planteatu diezazkiekeen gizarte arazoei erantzuna ematen saiatuko da.

Orduategia: 8:00etatik 15:00etara (astelehenetik ostiralera)

Telefonoa: 94 457 93 46

7.4 Justifikagiriak eta txostenak:

Justifikagiria eskatzeko Harrera Nagusiko Zerbitzura joan behar duzu, Ospitalizazioko Harrera Nagusian dagoena, 08:00-18:00h, astelehenetik ostiralera.

Asteburuetan eta jaiegunetan, Larrialdietako Onarpen Zerbitzura joan beharko duzu.

Txosten klinikoak edo proba diagnostikoren baten kopia behar baduzu, pazientearen osasun-karpetaren bitartez eska dezakezu (horretarako aurretiaz osasun-karpetan altan emateko eskatu beharko duzu zure osasun-zentroan), edo Pazienteari arreta egiteko Zerbitzuaren bitartez.



7.5 Harremanerako telefonoak

- ZIU: 94 40 07 019
- Galdakao-Usansoloko Ospitaleko telefono-gunea: 94 40 07 000

7.6 Gomendioak

- Hala nahi baduzu, senidea zaintzen lagundu ezazu; ahal duzun neurrian, eta profesional arduradunek behar duzun trebakuntza jaso ondoren.
- Zalantzarik badaukazu, egin itzazu behar diren galdera guztiak.
- Halakorik behar baduzu, eska ezazu laguntza espirituala edo psikologikoa.
- Elikadura zaindu ezazu eta atseden hartzen ahalegindu zaitez.
- Egoera horri aurre egiten lagunduko dizuten jarduerak egin itzazu, ospitaletik kanpo.



Kontsulta iezaguzu behar duzuna. Laguntzeko gaude!



8 Bibliografia

"Guía para familiares" Bellvitgeko Ospitaleko Zainketa Intentsiboko Unitatea. 1. edizioa. 2017ko maiatza. Clavero etorbidea, G; Vallés Fructuoso, O; Uya Muntaña, J; et al.

"Guía informativa para los familiares de los pacientes ingresados en el Centro de Críticos" Sabadelleko Ospitalea- Corporació Sanitària Parc Taulí Centre de Crítics. Uztaila.

"Información para familiares de pacientes ingresados en la Unidad de Cuidados Intensivos" Gregorio Marañón Unibertsitate Ospitale Orokorra. Medikuntza Intentsiboko Zerbitzua.